## ARRASATEKO UDALBATZARI:

Haur eta Guraso Asanblada duela 6 urte jaio zen, aterpea bilatuz Arrasateko Gaztetxearen bueltan sasoi hartako eguraldi euritsuak bultzatuta. Haur eta guraso ezberdinak biltzen hasi ginen eta gure artean sortutako kezkak partekatzeko espazioa sortu genuen. Bertatik irten ziren herriari zabaldutako aisialdi ekintzak, hitzaldi sortak, tailerrak etab. eta baita gaur egun Txikitxokoa dena sortzeko eskaera ere. Gerora, pandemia etorri eta dinamika haiek geldiarazi zituen orain arte, taldea biziberrituta dator eta, ia 3 urteko geldialdiaren ostean. Herriko haur eta guraso ezberdinen arteko harreman sarea sortzeko helburua daukagu, behar ezberdinak mahai gainean jarri eta herrian eragiteko asmoz. Bide horretan, honako mozio hau aurkezten dizuegu:

**HERRIKO HAUR PARKEETAN ELEMENTU NATURALAK INTEGRATZEKO MOZIOA**

**Azalpena**

Aprendiceseko haur parkearen aukeraketa dela eta, Haur eta Guraso Asanbladatik hurrengo gogoeta eta kexa adierazi nahi genioke Arrasateko Udalbatzari:

- Ados gaude gure herriko jolas parkeak eraberritzearekin, herrian prosezu partehartzaileak sustatzearekin eta denon eritzia kontutan hartzearekin, baina ez gaude ados proposatzen diren jolas parke ereduekin.

- Azken urteetan Arrasaten berriztu diren haur parke guztien ereduak molde, jatorri, helburu... berdinekoak direla ikusi dugu. Proposatzen diren haur parkeak elementu artifizialez osatuak daude gehienbat, denak kautxozko lurzoruaz, kolore biziekin eta plastiko edo metalezko egiturak gailentzen dira. Alde batera uzten dute, egurraren naturaltasuna, goxotasuna eta lehuntasuna, eta lurzoru naturalaren aukera.

- Jolas parke guzti hauetako lurzorua kautxozkoa da, petroliotik eratorritako materiala, guztiz homogeneoa, beraz, haurrak irudimen eta jolas-aukera gutxirekin aurkitzen dira. Izan ere, kautxoari ezin zaio lurrari bezala ur pixka bat gehitu buztinezko zopa aberatsak egiteko, eta ezin zaio belartxo bat kendu zopa horri fideoak eransteko. Ezin dugu makilatxo bat hartu harearen gainean eguzki handiak edo nabigatzeko itsasontzi erraldoiak marrazteko, ezta gure lehen letrak lurrean idatzi ere (irakurketa-idazketa maitatzeko aproposa). Eta hori gutxi balitz, udan, eguzkiak erretzen duenean, zoru horien gainean egonez gero, eguzkiak erretako plastiko usain bizia arnasten dugu.

- Ebidentzia zientifikoak frogatzen du haurrek konexio handia dutela naturarekin. Eta ez hori bakarrik, frogatuta dago haurrek (eta helduek) egunero denbora behar dutela naturan, estresa murrizten lagundu eta, gainera, denbora horrek osasun orokorrean eragiten baitu, haurren kontzentrazio- eta arreta-gaitasuna bultzatzeaz gain. Gure ustez, bereziki interesgarria da haurrek jolastoki naturalak izatea herrian, denontzat eskuragarri, haurren osasunari mesede egingo diotenak eta ingurunearekin eta, bereziki, naturarekin lotura eta denbora izatea erraztuko dutenak.

- Uste dugu orain arte proposatu zaizkigun jolas parke hauek erabat mugatzen dutela haurraren sormena eta estimulazioa.

- Lurrez eta belarrez betetako parkeak nahi ditugu, ezin hobeak direlako erorikoak leuntzeko, eremu oso industrializatuetan bizita, eta mendiak hor dauden arren, ez ditugulako egunerokoan eskura.

- Ez ditugu haurrak jolas parkeetan mugatuta ikusi nahi. Haurrei egokitutako herria behar dugu.

Natur elementuekin osatutako parkeak izugarri ugaritzen ari dira Europa osoan eta baita gure inguruko herrietan. Asko, prozesu parte-hartzaile eredugarrien bidez landuak, bertako ingurunearekin bat datozenak eta jasangarritasun irizpide zein materialekin eraikiak. Kontuan hartuta jolas parke naturalen aldarrikapen hau ez dela berria eta lehendik ere egon direla herrian mota hauetako eskaerak, mozio bidez hau eskatu nahi diogu Arrasateko Udalbatzari:

**Akordioa:**

1. Aprendiceseko haur parkearen aukeraketa prozesuan elementu naturalekin osatutako aukerak sartzea bozketan. Berandu baldin bada, gutxienez hurrengo 2. eta 3. puntuak onartzea.

2. Haurrentzat diseinatzen diren etorkizuneko espazioetan elementu naturalak integratzeko konpromisoa hartzea.

3. Haurrentzat diseinatzen diren etorkizuneko espazioetan herriko haur, guraso eta beste eragileen, hala nola, hezkuntza eta psikomotrizitateko adituen, parte hartze aktiboa sustatzea. Parte hartzea oinarritik eta sakontasunez gauzatzea, zein parke berriztu nahi den, zein helburuarekin eta norentzako bezalako gakoak ondo landuz.

Gure eskaera kontuan hartuko duzuelakoan, eskerrik asko.

Xabi Betzuen Bilbao
Arrasateko Haur eta Guraso Asanblada

Arrasaten, 2022ko irailaren 29an.

## AL PLENO MUNICIPAL DE ARRASATE:

La Asamblea de Niñas/niños y Madres/padres nació hace 6 años, buscando refugio en el entorno del Gaztetxe de Arrasate, cuando el tiempo no acompaña y llueve. Comenzamos reuniendo a niños y madres, y así creamos un espacio para compartir las preocupaciones que surgieron entre nosotras y nosotros. De todo ello surgieron actividades de ocio, conferencias, talleres, etc. que se difundieron por todo el municipio, y también la petición de crear lo que hoy en día es el Txikitxoko. Posteriormente, con la llegada de la pandemia dichas dinámicas se han frenado hasta la fecha, pero el colectivo viene renovado tras casi 3 años de pausa. Tenemos como objetivo la creación de una red de relaciones entre niñas/niños y madres/padres del municipio, con el fin de poner sobre la mesa las diferentes necesidades y ponerlas en funcionamiento en el municipio. En este sentido, os presentamos la siguiente moción:

MOCIÓN PARA LA INTEGRACIÓN DE ELEMENTOS NATURALES EN LOS PARQUES INFANTILES DE LA LOCALIDAD

Exposición

En relación con la elección del parque infantil de Aprendices, desde la Asamblea de Madres/padres y Niñas/niños queremos trasladar al Pleno Municipal de Arrasate las siguientes consideraciones y quejas:

- Estamos de acuerdo con la renovación de los parques de juegos de nuestro municipio, con la promoción de los procesos participativos en el municipio y con que se tenga en cuenta la opinión de todos nosotros, pero no estamos de acuerdo con los modelos de parques de juego que se proponen.

- Hemos visto que los modelos de todos los parques infantiles renovados en Arrasate durante los últimos años tienen el mismo canon, origen, objeto... Los parques infantiles que se proponen están compuestos mayoritariamente por elementos artificiales. Todos ellos de suelo de caucho, con colores vivos, y sobresalen las estructuras plásticas o metálicas. Dejan de lado la naturalidad, calidez y suavidad de la madera, y la opción del suelo natural.

- El suelo de todos estos parques de juegos es de caucho, material derivado del petróleo, totalmente homogéneo, por lo que los niños y niñas se encuentran con pocas opciones de imaginación y juego. De hecho, al caucho no se le puede añadir como a la tierra un poco de agua para hacer sopas ricas de arcilla y no se le puede quitar ninguna hierba para añadir fideos a dicha sopa. No podemos coger un palo para dibujar sobre la arena grandes soles o gigantescos barcos navegantes, ni podemos escribir en el suelo nuestras primeras letras (ideal para gozar de la lectura y escritura). Y si esto fuera poco, en verano, cuando más calienta el sol, si estás sobre estos suelos, respiramos un fuerte olor a plástico quemado por el sol.

- La evidencia científica demuestra que los niños y niñas tienen una gran conexión con la naturaleza. Y no sólo eso, está demostrado que los niños y niñas (y las personas adultas) necesitan todos los días estar en contacto con la naturaleza, porque contribuye a reducir el estrés y, además, este periodo de tiempo repercute en la salud general, además de favorecer su capacidad de concentración y atención. Consideramos especialmente interesante que los

niños y niñas dispongan de lugares recreativos naturales en el municipio, accesibles para todos, que favorezcan su salud y faciliten su vinculación y su tiempo con el entorno y, en especial, con la naturaleza.

- Creemos que estos parques lúdicos que se nos han propuesto hasta ahora limitan totalmente la creatividad y estimulación de la niña y niño.

- Queremos parques llenos de tierra y de hierba, porque son perfectos para paliar las caídas, viviendo en zonas muy industrializadas y, aunque las montañas las tenemos aquí mismo, no las tenemos disponibles todos los días.

- No queremos ver a las niñas y niños limitados en los parques. Necesitamos un municipio adaptado a la infancia, a las niñas y niños.

Los parques con elementos naturales están aumentando de forma espectacular en toda Europa y también en los municipios de nuestra comarca. Muchos de estos parques, que han sido desarrollados en procesos participativos ejemplares, han sido construidos teniendo en consideración su entorno y con criterios y materiales sostenibles. Teniendo en cuenta que esta reivindicación de parques naturales recreativos no es nueva y que ya ha habido en la localidad solicitudes de este tipo, por medio de la presente moción solicitamos lo siguiente al Pleno del Ayuntamiento de Arrasate:

**Acuerdo:**

1. Incluir en la votación las opciones completadas con elementos naturales en el proceso de selección del parque infantil de Aprendices. En caso de que sea tarde, aprobar como mínimo los puntos 2 y 3 siguientes.

2. Comprometerse a integrar los elementos naturales en los futuros espacios que se diseñen para las niñas y niños.

3. Promover la participación activa de niñas y niños, madres y padres y otros agentes del municipio, expertos y expertas en educación y psicomotricidad, en los espacios de futuro diseñados para las niñas y niños. Materializar la participación desde la base y en profundidad, trabajando adecuadamente las claves de qué parque se pretende renovar, con qué objeto y a quién va dirigido.

Esperando que nuestra solicitud sea tenida en cuenta, muchas gracias.

Xabi Betzuen Bilbao
Asamblea de Niñas/niños y Madres/padres de Arrasate

En Arrasate, a 29 de septiembre de 2022

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
2022 URR. 26
Zkia. 11262
Sail. Exp.
SARRERA

PSOE

## AZAROAREN 25ERAKO EUDELEN ADIERAZPEN EREDUA, 2022KO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA DELA ETA

## SEXU-JAZARPENA ETA EMAKUMEEN AURKAKO BESTE SEXU-INDARKERIA MOTA BATZUK ESPAZIO PUBLIKOETAN

Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Hitz batez, norberaren askatasun individual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematiaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldeen arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabileran, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufritzen ari dira.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio social zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek

beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamatutako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera.

Toki administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoakl emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, "Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak", espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta neskentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarderiarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri-Itunaren indotik.

Esparru horretan, Arrasateko Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

1. Era sakonean ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko.
2. Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.
3. Aldaketak bultzatze jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatoek indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.
4. Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokionez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharrizanak kontuan har daitezen.
5. Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukea errazteko. Eta hiri eta herri seguru eta inklusiboak lortzeko, emakumeentzat eta neskentzat.
6. Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foro-aldundiekin besteak beste; gizarte-taldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko.

JOHANNA SANCHEZ HERRERO
72.456.249 Q

DECLARACIÓN MODELO DE EUDEL PARA EL 25N, DÍA POR LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES 2022

# El acoso sexual y otras formas de violencia sexual contra las mujeres en espacios públicos

Este 25 de noviembre queremos reivindicar el derecho de las mujeres al uso y al disfrute del espacio público en condiciones de igualdad como garantía del ejercicio de sus derechos de ciudadanía plena y, en definitiva, como garantía del desarrollo de su propia libertad, individual y colectiva.

Se han logrado avances mediante el esfuerzo tenaz de muchas mujeres de manera individual, así como de los movimientos feministas y de otras organizaciones, para la superación de la dicotomía del reparto de los espacios públicos y privados entre hombres y mujeres. Sin embargo, aún existen enormes diferencias en el uso que unas y otros pueden hacer de su participación en la vida pública, del disfrute y de la apropiación de las calles de nuestras ciudades y de nuestros pueblos.

Entre los múltiples mecanismos que restringen este uso igualitario, queremos poner el foco en la violencia sexual que las mujeres y niñas de todo el mundo vienen sufriendo en el espacio público.

La violencia sexual ejercida contra las mujeres y las niñas dentro del contexto de la violencia machista normalizada tiene un objetivo claro, una función social definida, la de controlar a las mujeres y reducir su libertad. En concreto, la violencia sexual ejercida en los contextos festivos y de ocio cumple esta función de control de la sexualidad de las mujeres, así como de la libre expresión de su deseo, de su cuerpo, de la movilidad, de la ocupación del espacio público, de las relaciones sociales y de su derecho al disfrute en términos de igualdad.

Por lo tanto, es una obligación y un objetivo de las políticas públicas y de las administraciones vascas, promover todas las estrategias y mecanismos a su alcance para garantizar que las mujeres y las niñas puedan ejercer su ciudadanía plena en el espacio físico de nuestras ciudades y pueblos y puedan hacer uso del mismo en condiciones de igualdad.

Debemos tener en cuenta que el ejercicio del derecho reclamado no se reduce a la seguridad, sino que se extiende al acceso y libertad para habitar un espacio y socializar, para apropiárselo y para transformarlo de acuerdo con los intereses, deseos y necesidades de las mujeres y niñas.

A las administraciones locales, a través de sus políticas públicas y del planeamiento urbano, les corresponde transformar los espacios públicos en lugares amigables y libres de violencia contra las mujeres.

La iniciativa mundial de ONU Mujeres *"Ciudades Seguras y Espacios Públicos Seguros"* promueve la creación de espacios públicos seguros y empoderantes para mujeres y niñas, libres de acoso sexual y de otras formas de violencia sexual, en línea también con el Pacto de País por la igualdad y vidas libres de violencia contra las mujeres.

En este marco, el Ayuntamiento de XXXX asume los siguientes compromisos:

1. Conocer en profundidad las múltiples formas de negación del espacio público a las mujeres para tenerlas en cuenta en el diseño y desarrollo de las políticas locales.

2. Impulsar la implementación efectiva de las leyes y políticas integrales para prevenir y responder a la violencia sexual en espacios públicos, a través del desarrollo de capacidades, sensibilización, movilización comunitaria y otras estrategias.

3. Impulsar cambios en las actitudes y comportamientos para garantizar los derechos de las mujeres y las niñas a disfrutar de espacios libres de violencia promoviendo relaciones de género respetuosas, la igualdad de género y la seguridad en los espacios públicos.

4. Promover inversiones en seguridad real y percibida en los espacios públicos asegurando el enfoque de género en la planificación urbana para que se tengan en cuenta las necesidades de las mujeres.

5. Reforzar Berdinsarea como la red de buenas prácticas locales para facilitar el intercambio de conocimiento sobre iniciativas y buenas prácticas para conseguir ciudades y pueblos seguros e inclusivos para y con las mujeres y las niñas.

6. Colaborar con otras instituciones y administraciones, Emakunde y diputaciones forales entre otras, así como con el tejido social, feminista, para que mujeres y niñas puedan disfrutar del espacio público con seguridad y en igualdad.